



Ariketak

1. Zer ohitura osasungarri dituzte irudietako neska-mutilek?

higienea – kirola – atsedena
jarrera egokia – elikadura



2. Osatu galdeketa hau koadernoan.

Ohitura	Inoiz ez	Batzuetan	Beti
Hamar orduz egiten dut lo egunean			
Kirola egiten dut			
Egunero dutxatzen naiz			
Eskuak garbitzen ditut jan aurretik			
Zuzen esertzen naiz gelan			

3. Aurreko ariketan zer erantzun duzun kontuan hartuta, ohitura osasungarriak dituzula uste al duzu? Azaldu erantzuna.

4. Zenbait gaixotasun kutsakorrek dira. Horrek esan nahi du batzuegandik besteengana transmiti daitezkeela. Azaldu zergatik ez ditugun erabili behar gripea duen norbaitek erabilitako mahal-tresnak eta edalontzia.





IKASI EGITEN

5. Ikasi grafiko bat interpretatzen.

Grafiko baten interpretazioa


Amaiak, gorputz-hezkuntzako irakasleak, jakin nahi du zer kirol egitea atsegin duten ikasleek. Hori dela-eta, galdetu die ea zer kirol egitea gustatzen zaien gehien, eta grafiko bat marraztu du jasotako datuak erabiliz.



Taulak zer eduki duen adierazten du izenburuak.

Lerro bertikalean, ikasle kopurua idazten da.

Lerro horizontalean, kirolak idazten dira.



Kirol bakoitzerako, zutabe bat marrazten da. Zutabe horrek adierazten du zenbat ikaslek aukeratu duten kirol hori. Zutabe baten zati altuenetik lerro bat marrazten badugu ezkerreko lerroaraino, kirol hori zenbat ikaslek aukeratu duten jakingo dugu. Esate baterako, igeriketa bi ikaslek aukeratu dute.

- Zein kirol aukeratu dute ikasle gehienek? Eta zein, gutxienek?
- Zenbatek aukeratu dute futbola? Eta windsurfa?
- Osatu taula hau:

Kirola	Futbola	Saskibaloia				
Ikasle kopurua	9					